

HITZ BITAN

Taldea egitea du xede nagusia

BERRIOZAR. Lehen urtea du gizonezkoen taldeak Nafarroako Sokatira Txapelketako Maila Nagusian, eta 17 tiralarik dihardute. 680ko finala jokatu, «egurra» emango dutela dio Lekunberri prestatzaileak

Koldo Alduntzin | DONOSTIA

Maila Nagusian lehen denboraldia du gizonezkoen Berriozar taldeak; orain hiru denboraldi (1997) emakumezkoen taldea zuten hor. Joan zen larunbatean gizonezkoen 680 kiloko finala jokatu zuten, eta Berriozarkoak laugarren postuan sailkatu ziren, Ezkabondoari 2-1 irabazita, Lesakan. Bihar 640 kiloko lehen jardunaldia jokatuko dute, eta Beti Gazte, Txantrea, Imotz eta Ezkabondoaren kontra ariko dira.

Berriozarrek Rosalia Lekunberri du prestatzaile, lehen emakumezkoen taldean aritua, eta, hain justu, emakumezkoen taldearen desagertzeaz mintzo da: «Berez, neskak nahiko kirol gutxi egiten dugu, eta kosta egiten zaigu sokatiran irautea. Arituak aurkitzea, berriz, aski zaila da».

Hasi berria den txapelketari buruz, berriozartarrek gizonezkoen arloan dituzten helburuak laburbildu ditu: «Maila Nagusian gaude, eta, jakina, maila ere altuagoa da. Horregatik, ti-

ralari berri batzuk ere sartu ditugu taldean. Irailean hasi ginen prestatzen, eta, egia esanda, ez dugu behar adinako denborarik izan. Gure helburu nagusia lehian jardutea da, ahal dugun

guztia irabazi, taldea indartu eta gure artean giroa sortzea».

Tiralari bat edo beste kenduta, gehienak Berriozarkoak dira. Guztira 17 tiralari direla eta soka egin dituzten urteei

dagokienez «denetarik» dagoe-lagaitz gaineratu du nafarrak. Beren kezka handiena «gainerako taldeak nola zeuden» omen zen txapelketa hasi aitzin, eta, larunbatekoa ikusita, ongi eta



KOLDO ALDUNTZIN

Berriozar taldea, sokari tiraka, Rosalia Lekunberri alboan dutela, joan zen larunbatean, Lesakan.

«egurra emateko moduan» daudela dio irribarre bihurriaz.

680 kilokoan tiraldi bat irabazi zieten Ezkabondoakoek: «Uste dut iraupen arazoengatik izan zela». Taldeak behar izanez gero berak tiratuko al lukeen galdetuta, «Bigarren Mailakoan tira genezakeen mutilek eta neskek nahastuta, baina Maila Nagusian emakumezkoen txapelketa badagoenez, ezin dugu», dio. Euskal Herriko Txapelketan ere esku hartzeko asmoa dutela esan du Lekunberri, 600 kilokoan hain zuzen ere.

Tiralarien artean Josetxo Urrutia harri-jasotzailea dute, eta orain gutxi hasi da soka.

Beti Gazte da egungo txapelduna 640 kilokoan

Lesakarren taldean bizpahiru tiralari utzi dute, baina, halere, indartsuena da, eta txapelari eusteko hautagaia. Imotzek eta Txantreak berriro lehia izango dute bigarren postuaz jabetzeko; 680koan Imotzek irabazi zuen. Emakumezkoen 520koan Imotz eta Burlata ariko dira.

Bigarren saioa

Txapelketa: Goma gaineko Nafarroako

Txapelketa.

Jardunaldia: 640 (giz.) eta 520 (ema.) lehen jardunaldia.

Lekua: Atarrabiako Lorenzo Goikoa kiroldegia.

Ordua: 17:00 (bihar).

SUMOA. Musashimaruk 12 borroka irabazi eta bakarra galdu du Fukuokan



AP

Handiak erraz gainditu zuen txikia

Sumoan sarritan ikusi eta irakurri dugu handienak amore eman duela txikienaren aurka. Argazkiko borrokan, ez; Musashimaru hawaiiar txapeldunak papera balitz bezala altxatu zuen Asashoryu aurkari mongoliarra, eta irabazi egin zuen borroka.

HITZ ETA PITZ

JOAN GASPART

(Bartzelona taldeko presidentea, taldea Liverpooli 1-3 irabazi ostean)

«‘Dream team’-az gogoratu naizen? Astearteko taldeari ‘Charlyren [Rexach] haurrak’ deituko nioke»

PHIL JACKSON

(Los Angeles Lakers taldeko entrenatzailea)

«O’Neal puntu bateko jaurtiketak egiten ikustea beldurgarria da»

SHAQUILLE O’NEAL

(Los Angeles Lakers taldeko jokalaria)

«Kokoteraino nago kritikekin. Sartu behar direnean, sartzen ditut. Bi eraztun ditudala ahaztu zaie askori»

FUTBOLA

Josep Guardiola positibo eman du, nandrolona substantziarekin

Josep Guardiola futbolari kataluniarra positibo eman du Piacenza-Brescia partidaren ostean egindako analisi batean. Italiako Olinpiar Bartzordearen arabera, nandrolona substantzia aurkitu dute jokariaren txizan. Baliteke 12 eta 18 hilabete arteko zigorra jasotzea Guardiola positibo egiaztatzen bada.

ATLETISMOA

Bikoteen Herri Krosa antolatu dute Zarautzen abenduaren 2rako

Bikoteen XVIII. Herri Krosa antolatu dute abenduaren 2rako (11:45) Zarautzen (Gipuzkoa). 8.5 kilometro izango ditu probak eta bikotea elkarrekin helmugaratzea derrigorrezkoa izango da. Izenak proba hasi baino ordu erdi lehenago eman daitezke. Zarauzko Kirol Elkartearen ere eman daiteke izena. Informazio gehiago, 943-83 14 63 telefonon.